

MAIATZAK ¹2011

PENTZIOKADA...

GIZARTE ITUNA...

MURRIZKETAK...

MOBILIZATU!!!



**LANAREN
KONFEDERAKUNDE
NAGUSIA**



WWW.CGT-LKN.ORG

WWW.ROJOYNEGRO.INFO

2011ko MAIATZAREN 1. LKNren ALDARRIKAPENA

KRISIAREN KONTRA, EKITEKO GARAIA DA

Maiatzaren 1. mundu osoko langileriarentzat esanahi sinboliko berezia duen data da. Egun honetan, 1886. urtean, zortzi orduko lanaldiaren alde borrokatzeagatik, patronalak Chicagon erail zituen langileak gogora ekartzen ditugu.

Gaur egun langileok, borrokari tinko eutsi behar diogu, jasaten ari garena, XIX. mendeko patronalak egiten zituen antzerako eraso basatia baida.

Langileria, herri xehea, talde sozial txiroenak, emakumeak, migranteak, gazteak, agureak, ikasleak, herriak, gure azalean sufritzen dugu esplotazio sozial eta laborala, oinarrizko eskubideen ukazioa, bazterketa, prekarietatea, behin-behinekotasuna, marjinazioa, langabezia... politikari profesionalek, gobernuek eta patronalak eraikitako eta kudeatutako sistema kapitalista honetan, sindikalgintza ofizialaren laguntzaz, zeinak modu ziztrinean, lau papurren truke saltzen gaituen behin eta berriro.

Etengabe, gizarte, lan arloko, sindikalgintza arloko eta giza eskubide guztiak txikitzen ari dira. Gaur, gehiago lan egin behar dugu eta gutxiago kobratu, urte gehiago lanean igaro, erretreta txikiago bat lortzeko, zuriari dauden kontratuak zinatuz behar ditugu, nahi dutenean kaleratu ahal gaitzaten, eta kalte-ordainik jaso gabe, eta enpresen gehiegikerien aurrean genuen gure arma ziren lan-hitzarmenei dagokiona ezabatu dute.

Ezin dugu denbora gehiagorik jasan, Zapatero eta herri honetako haundimaundien artean halako politika antisozialak adosten jarraitzea, gure bizitzak beraiena balira bezala, eta inolako berme demokratikorik gabe gainera.

CGTtik, gizon eta emakumeok gizarte bortitz, matxista eta erasotzaile honi ezetz diogu. Ezetz gizarte baztertzailerik, arrazista eta senofoboari. Ezetz sistema kontsumista eta desarrollista honi, interes pribatu, plusbalioak eta konpetitibitatea, produktibitatea eta giza eskubideei aurrejartzen dituela, lan istripuak zerbait arrunta balitz bezala onartzen dituen eta pertsonak besterik gabeko merkantziak bagina bezala erabiltzen gaituena.

Adierazpen askatasuna, komunikazio askatasuna, zerbitzu publikoak pribatizatu egiten dituenari, diktadurekin tratuan dabilenari, memoria historikoaren ahazpena inposatzen zaion gizarteari, sententzia frankistak baliogabetzen ez dituenari, dignitate, justizi soziala eta askatasunagatik borrokatzen dutenen eta sistemaren aurka adierazten direnenen kontra, heldurrean eta errepresioan oinarritzen den sistemari ezetz diogu.

CGTtik ezetz diogu energi nuklearrari gizakiaren nahiz planetaren bizia arriskuan jar ahal dezaken edozein argudioren onarpenik ez baitago. Gatazken konponbiderako guda sistemari ezetz diogu, parte hartze militarri ez.

LKNrentzat gizarte justuago eta askeagoa eraikitzeko hitza hartzeko eta ekintzara pasatzeko garaia da. Mobilizazio sozial eta laboralaren garaia da langileek haien etorkizunaren protagonistak izan daitezen.

GORA MAIATZAREN LEHENA